# IPARRAGIRRE HEGALARIA

*Zeanurin 1992.eko Abuztuan antzeztutako "Iparragirre Hegalaria" obra musikalaren doinuaz hornitu dogu disko ha*

## GITARRA ZARTXO BAT

Gitarra zartxo bat da
neretzat laguna,
onela ibiltzen da
artista euskalduna:
egun batean pobre,
beste batez jauna,
kantari pasatzen det
nik beti eguna.

Naiz dela Italia,
orobat Frantzia,
bietan bilatu det
anitz malizia.
Ikusten badet ere
nik mundu guztia
beti maitatuko det
bai, Euskalerria.

Jaunak ematen badit
neri osasuna,
oraindik izango det
andregai bat ona.
Emen badet frantsesa
interesaduna,
baina nik naiago det
utsik euskalduna.

Agur Euskalerria,
baina ez betiko;
bost edo sei urtetan
ez det ikusiko.
Jaunari eskatzen diot
grazia emateko,
nere lur maite ontan
ezurrak uzteko.

IPARRAGIRRE
Konponketak: RAUL LLANES.



***ABESTIAK ANTZEZTALDIKO KRONOLOGIA JARRAITUZ***

*(1820. eko Abuztuaren 12an Urretxun jaiotzen da Jose Mª Iparragirre. Handik lasterrera Madrilera Joango da bere gurasoekin. 14 urte ebazanean "ama, eskolara noa" esanez karlista ejerzitoaren Gipuzkoako lebenengo batalloian sartuko da).*

## ORAINDIKAN EZ

nere bizkarrik ikusi;

Ez oraindikan, ez du etsaiak

Euskaldunen anima.
Argitasunik ez da ageri,
Zerua dago iluna;
Libertadea esan kantari
Il arte maita dugula.

Zoaz, Don Karlos, errege jauna,
Urrun bai gure lurretik;
Ez dezu utzi guretzat pena
Eta tristura besterik;
Lutoz negarrez ama gaisoak
Ai!, ezin konsolaturik;
Ez degu nai geiago ikusi
Zori gaiztoko gerrarik.

IPARRAGIRRE - GONTZAL MENDIBIL
Konponketak: ALBERTO RODRIGUEZ

*(Iparragirrek Frantziarako bidea hartuko dau. Bertan ezagutuko dau Caroline Duprez, Paristar sopranoa).*

## PLAISIR D´AMOUR

Plaisir d´amour
Ne dure qu´un moment
Chagrin d´amour
Dure toute la vie.

J´ai tout quitte
pour l´ingrate Sylvie
elle me quitte et prend
un autre amant.

Tant que cete eau
coulera doucement
vers ce ruisseau equi
qui borde la prairie.

Je t´aimerai
me répétait Sylvie
l´eau coule encore
elle a cange poùrtant.

J. MARTINI
Konponketak: RUPER LEKUE

## NERE IZARRA

Zu zera nere izarra,
zu nere eguzkia,
aingeruen artetik
zerutik jetxia.

Zure ondoren nabil
erdi txoraturik,
nere biotz gaisoa
ezin sendaturik.

*Nere biotza dago*
oso penaturik,

*laster zure ondotik.*

*laster zure ondotik.*

*(19 urte eta gero bere amarengana doa:*
*- Ama!*
*- Honeik dire eskolatik etorteko orduek, seme!)*
*(Madrilen, San Luisgo kafetegian).*

## TRAPU ZARRAK

Egunez trapu biltzen,
gabean dantzan lertzen,
beti umore onean
degu pasatzen.
Eta goizean goiz
kalera irten da
lo gozoan daudenak
esnatzen ditut:
¡Trapu zarrak!

Erosten ditut trapuak,
praka zaar urratuak,
gona gorri zarrak eta
atorratxuak.
Josak zurrumuzki,
atabal soinu ,
dantzan egiteko
beti erana.
¡Trapu zarrak!

Eltze elbarrituak
pertza zulorik badu,
arran-parrilik edo
trebera zarrik.
Inork saltzeko badauzka
librako txanponean
Ramon Batistak
erosten ditu:
¡Trapu zarrak!

Atera, atera
trapuak saltzera
nik erosten ditut
modu onean.
Arditean prakak,
kuartuan albarkak,
ta burni zarrak
txanponean.

IPARRAGIRRE
Konponketak: RUPER LEKUE

*(Euskalerrian).*

## BERTSOAK

XENPELAR: Iparragirre abilla dela
askori diot aditzen,
eskola ona eta musika
ori oyekin serbitzen.
Ni ez nazu ibiltzen
kantuz dirua biltzen
komediante moduan,
debalde festa preparatzen det
gogua dedan orduan.

IPARRAGIRRE: Festa debalde jartzen badezu
gogua dezun orduan
estimatuko nizuke deja
gizon prestuen moduan.

*ni bezain festa zalerik,*

ni bezain festa zalerik.

Gure sabela bete bear da
al bada gauza onarekin;
dagon lekutik eragin bapo,
aupa mutilak, gogoz ekin!
Glu, glu, glu ...

Umorea da gauzik onena,
naigabeak ditu aztutzen;
Uju ta aja hasi gaitean
euskal doinuak kantatzen.
Glu, glu, glu...

IPARRAGIRRE
Konponketak: RUPER LEKUE

## ZUGANA MANUELA

Zugana, Manuela,
nuanian pentsatu
uste det ninduala
deabruak tentatu;
ikusi bezinekin
naiz enamoratu,
ojala ez bazinan
sekulan agertu.

Amorioz beterik,
esperantzik gabe,
zergatik egin zinan
biotz onen jabe,
zuk esan bear zenduen
emendikan alde,
egiaz ez naiz ni
bizardunen zale.

Barkatu bear dituzu
nere erokeriak,
zuri begira daude
nere bi begiak;
Garbi - garbi esan dizut
nere ustez egia,
zoraturikan nauka
zure arpegiak.

Gauean ibili naiz
guzizko ametsetan,
Donostian nengoela
Andre Marietan,
eta ikusi nuela
erri artako plazan
erdian zebilela
Manuelatxo dantzan.

IPARRAGIRRE
Konponketak: RUPER LEKUE

## GERNIKAKO ARBOLA

*da bedeinkatua,*
euskaldunen artean

*Eman ta zabal zazu*
*munduan frutua:*

Eman ta zabal zazu
munduan frutua:

*(Iparragirre Tolosan kartzelan).*

## ZIBILAK ESAN NAUTE

Zibilak esan naute
biziro egoki
Tolosan bear dala
gauza erabaki.
Giltzapean sartu naute
poliki - poliki;
negar egingo luke
nere amak baleki.

Jesus tribunalian
zutenean sartu
etzion Pilatosek
kulparik bilatu;
neri ere arkitu ez arren
ez didate barkatu,
zergatik ez dituzte
eskuak garbitu?

Kartzelatik atera,
fiskalen etxera
abisatu zidaten
joateko bereala;
ez etortzeko geiago
probintzi onetara;
orduan artu nuen
Santander aldera.

IPARRAGIRRE
Konponketak: RUPER LEKUE

---

*(Iparragirre eta Anjela).*

## AMOREZ ERIA

Amorez eri nago
aspaldi onetan,
zuregatik maitea
gau ta egun penetan!
Arki nezake poza
badakit nik zertan,
sendatuko nitzade
zure besoetan.

Oh!, zure mingaiN ezti,
ezpain gorri fiñak,
itz batekin sendatzen
dizkidatzun miñak;
Amodio onean
badira ordainak,
entregatzen dizkitzut
biotz ta entraiñak.

Ez da mundu onetan
neretzat gustorik
baldin bizi bear badet
urruti zugandik
Egunaz esnaturik,
gauaz ametsetan,
beti beti oi nago
zugatik penetan.

IPARRAGIRRE

---

## OI, NERE ZORAGARRIA

Oi, nere zoragarria,
animaren galgarria
orobat engainagarria ...!
Nundik zera etorria,
Anjela maitea?

Ederra zerala diozu,
nere maite polita
zera zu.

Arlote bainan galaia,
emen nabil zure bila,
nere biotzaren arria,
nere gaisoen sendakia,
Anjela maitea ...

Ederra zerala diozu,
nere maite polita
zera zu.

IPARRAGIRRE

---

*(Itsasontzian Ameriketarantz).*

## AGUR EUSKALERRIARI

Gazte gaztetatikan
erritik kanpora,
estranjeri aldean
pasa det dengora.
Errialde guztietan
toki onak badira,
bainan biotzak dio
"Zoaz Euskalerrira".

Lur maitea uztea
da negargarria,
emen gelditzen dira
ama ta erria.
Urez noa ikustera
bai, mundu berria ...
oraintxe bai naizela
errukigarria.

Agur nere biotzeko
amatxo maitea!
Laster etorriko naiz
kontsola zaitea.
Jaungoikoak nai badu
ni urez joatea,
ama, zertarako da
negar egitea?.

IPARRAGIRRE
Konponketak: RUPER LEKUE

---

## OBABATXOA

Obabatxoa lo ta lolo
zuk orain eta nik gero
zeuk gura dozun orduen baten
biok egingo dogu lo.

Obabatxoa lo lorina,
auxe da nire pospolina,
nire pospolina da gaitea
neure seme laztan maitea.

Gure umia negarrez dago
ama emoiozu titie,
aite faltsoa tabernan dago
ordizar jokolarie.

Lo lo ...

HERRIKOIA
Konponketak: RUPER LEKUE

---

*(Ardi baltzak Iparragirreren gogoko ziran).*

## BELTZARANA

Beltzarana naizela
Kalean diote,
ez naiz zuri ederra,
arrazoia dute;
eder zuri galantak
pausoan amabi,
beltzaranak graziosak
milaetatik bi.

Beltzarana naizela
zuk neri esateko
lenago zan denbora
erreparatzeko;
beltzak eta zuriak
mendian ardiak;
zuk ere ez dituzu
bentaja guziak.

Beltzarana graziosa,
parerik gabea,
mundu guziak dio
zerala nerea;
munduak jakin eta
zuk ez jakitea,
ondo egiten dezu
disimulatzea.

Sarritan amodioz
dizut begiratzen,
arreta guztiakin
errespetatutzen;
begiak beltzez beltzak
itz ori donoso ...
ez det mutilik bear
orren amoroso.

IPARRAGIRRE - GONTZAL MENDIBIL
Konponketak: RAUL LLAMES.

---

## URRETXUKO SEMEEI

Bilarrreal de Urretxu
nere erri maitea,
seme bat emen dezu
amorioz betea.
Nai, baina nola ikusi,
au da lan tristea,
zuretzat nai det bizi
urretxu neren.
Bi mila eta seireun
legua badira
Montevideo - tikan
Euskalerrira:
Naiz esperantzetan
etorri bagera,
aurreratasun gabe
urteak joan dira.

Bai, nere adiskideak,
bear da pentsatu
zuentzat Amerika
nola dan mudatu;
inork emen ezin du
lanikan bilatu,
orain datorrenari
bear zaio damutu

Agur, adiskideak,
ikusi artean;
zuenganatuko naiz
egunen batean.
Esperantzakin bizi
nai det bitartean,
gero ezurrak utzi
nere lur maitean.

IPARRAGUIRRE
Konponketak: RUPER LEKUE

---

*(Bere familia agurtuz).*

## AGURRA

DOINUA: GONTZAL MENDIBIL.
Konponketak: ALBERTO RODRIGUEZ.

---

*(Hendaian).*

## ARA NUN DIRAN

Ara nun diran mendi maiteak,
ara nun diran zelaiak,
baserri eder zuri - zuriak
iturri eta ibaiak.
Hendaian nago zoraturikan
zabal - zabalik begiak;
ara, España, lur oberikan
ez da Europa guztian.

O, Euskalerri, eder maitea,
ara emen zure semea,
bere lurrari mun egitera
beste gabe etorria.
Zuregatikan emango nuke
pozik, bai nere bizia;
beti zuretzat, il arteraino,
gorputz ta arima guztia.

IPARRAGIRRE
Konponketak: RUPER LEKUE

---

## EZ BEDI GALDU EUSKERA

Gure euskera eder maitea
galtzen gaur degu ikusten,
euskaldun onak arrritzeko da
nola ez diran lotsatzen!
Larramendirik, Astarloarik
ez da geiago aipatzen ...
ez da utsegin aundiagorik
ondo badegu pentsatzen.

Galdu dirade oitura onak,
galdua degu Euskera...
ola bagaude, eun urte barru
galdu da gure izena!
Erro, Aizkibel ziran bezela
erakusterik gaur ez da,
gure euskera... ai! galtzen bada
gu ... euskaldunak ez gera!

Nola isildu eta barkatu?
Etorkizunen Kondairak
arrazoiakin esango digu:
nun dira zuen oiturak?
Damu dute bai ... gaur euskaldunak,
lotsa pixka bat dutenak,
aspaldi esan duten bezela
gizonik jakintsuenak.

Dala Parisen eta Londresen
jakintsu asko badira;
euskerazko liburu zarren
ondoren ibiltzen dira...
Or da Luziano, printzipe ernaia,
orain guretar deguna,
euskerazale bikain - bikaina,
jakintsuetan aundi dena.

Arren, ez bada galdu euskera,
nere anaia maiteak!
Galtzen badegu... galduak gera
gu eta gure semeak.
Beti euskeraz itz egin, bada,
oso zaar ta gazteak,
esan ez dedin denok gerala
euskaldun biotz gabeak.

IPARRAGIRRE - GONTZAL MENDIBIL
Konponketak: ALBERTO RODRIGUEZ

---

*(Herriotza iragarten).*

## AZKEN IZUA

Tximistak zeruan,
odeiak, ekaitza
Ernio gainetikan
Aitzgorri mendira.
Ikaragarrizko
aizeak, trumoiak;
gaur eldu ote da
munduaren akabera.

IPARRAGIRRE - GONTZAL MENDIBIL
Konponketak: RUPER LEKUE

---

## REQUIEM

Euskalerria maite zuanaren
orra or nun degun obia,
Lur santu ori artzera goaz
lore koroez betea.
Igoa degu zeruetara
Urretxuar prestu noblea,
bere izena gure biotzean
izan betiko gordea.

Esperantza
ezazue.

IPARRAGIRRE - M. SAN MIGUEL

---

*(Andariak: - Baina gizon hau benetan zer izan zoan?
- Batek jakik, nork jakin leikek txori baten bizitza?)*

## EGUNEN BATEZ

Egunen batez agertuko da
gure goizeko izarra...
Bere odoietan inguru dela
Jaun Zuriaren itzala.
Eta orduan zainetan bada
Ibero zarren odola
biziak eman esanez biba
Jaungoikoa eta Arbola.

Arren! ez, bada, galdu esperantza
gerturatzen da eguna,
Nazionen liga edo alianza
da ikusiko deguna.
Orduan gora Kriston legea
errespetatzen deguna.
Bai, euskaldunen borondatea
da errien anaitasuna

IPARRAGIRRE - GONTZAL MENDIBIL
Konponketak: RUPER LEKUE




*Eskerrik beroenak Zeanuriko
berri eta Udalari, antzezle
eta Arratiar eta Otxandioko
kantariei, lan honetan parte
hartu daben guztiei. Nere esker
paregabea lagun ditudan B. Kapanaga,
J. M. Elvira (IPARRAGIRRE HEGALARIA)
antzeztaldiaren zuzendariari,
Ruper Lekuerieta, Iñaki Gonzalez Bilbaori.
Azkenik lan hau burutu ahal izateko
laguntza eskeini dozuen guztioi*





*Hitzak: J. M. IPARRAGIRRE.
Doinuak: IPARRAGIRRE - G. MENDIBIL - HERRIKOIAK.
Konponketak: R. LEKUE, A. RODRIGUEZ, R. LLAMES.
Orkestra zuzendaritza: URBANO RUIZ LA ORDEN.
Banda zuzendaritza: RUPER LEKUE.
Ehuko abesbatzaren: ZUZENDARIA: JULEN EZKURRA.
Grabazio zuzendaria: RUPER LEKUE.
AHOTSAK
Plaisir D'amour, Nere Izarra: BEGOÑA LOPEZ.
Obabatxoa, Amorez, : CARLOTA
Beltzarana,: RAQUEL URKIJO.
Trapu zaharrak, : ARGI ETXEZARRAGA.
Bertsoetan,: FLORENTINO URIARTE.
Gitarrak: RAUL LLAMES, RAFA VAQUERO.
Arpa: BEGOÑA GUZMAN.
Bandoneoia: KEPA JUNKERA.
Saxo sopranoa: JABI ALZOLA.
Perkusioa: ANDONI MUÑOZ GUREN.
Hizlariak: MARTIN ETXEBARRIA, LUIS ETXEBARRIA.
Azalaren Diseinoa: LUIS GARATE.
Argazkiak: JOSE IGNACIO LOBO.
Grabazioa: UNIDADE MUGIKORRA "BILBOSON".
PAN - POT ESTUDIOA
Grabazio teknikaria: IÑAKI GONZALEZ BILBAO.
Nahasketak: I. GONZALEZ BILBAO, R. LEKUE, G. MENDIBI*